

Izen berrien

Udazkena izaten da, udaberriarekin batera, disko ekoizpenaren sasoirik beroena. Durangoko Azoka begibistan dutela, euskal disketeek dagoeneko zehaztuta dituzte hurrengo argitalpenak. Horien artean azpimarragarria da talde berrien aldeko apostua: Buitraker, Akauzazte, Hautzarrak, Lif, Zea Mays... Proiektu berriak ere abian jarri dira: Bide Ertzean, Joseba Tapia eta Koldo Izagirre... Izen konsagratuen artean, Ruper Ordorikaren lan berriak sortu du ikusmin handiena.



GAZTELUPEKO HOTSAK

● **Bide Ertzean:** urriaren 8an kaleratuko da Jon Ander eta Imanol Ubeda anaiek (Deabruak Teilatueta) sortu duten proiektu berriaren lehen diskoa. Bi tolosarrok aspaldi jarri zuten martxan Bide Ertzean proiektua, miresten duten Jose Luis Otamendi poetaren olerkiak musikatzeko. Lagunen artean banaturiko pare bat maketa atera ondoren, prest dute lehen diskoa, *Bide Ertzean* izenekoa. Fran Iturbe gitarra joleak, Carlos Aranzegi bateria joleak eta Labrit abeslariak hartu dute parte grabazioan. Diskoak ildo intimista jarraitzen du, Otamendiren poesietan oinarriturik.

● **Morau:** urriaren hasieran ere ikusiko du argia Morau abeslariaren lan berriak. Hernaniarrak bost kantu zahar eta bi bertso —Xabier Montoiaren *Zugan gogoan* eta Jose Aphonso portugaldarraren bat— bildu ditu maxi-konpaktu batean. Grabazioan, Naco Goñik eta Joseba Tapiak jo dute, besteak beste. Morauk laster ekingo dio bigarren lan luzerako kantuak prestatzeari.

● **Joseba Tapia eta Koldo Izagirre:** hona hemen Gaztelupeko Hotsen argitalpenik bitxiena. Izan ere, ipuina eta musika uztartzen dituen diskoa prestatu dute Joseba Tapiak eta Koldo Izagirrek. Koldo Izagirreraren *Apoaren edertasuna* izeneko ipuina da oinarria, eta horren inguruan Joseba Tapiak kantu batzuk sortu ditu, trikitixa, perkusioa eta abar erabiliz. Diskoak «trikiaren errebin-



ELKAR

● **Benito Lertxundi eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa:** Kilometroak-en aldeko jaialdi baterako bildu ziren Benito Lertxundi eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, eta emaitzarekin gustura gelditu ondoren disko bat grabatzea erabaki zuten. Auhen sinfonikoak da oriotarraren eta orkestraren arteko elkarlanaren emaitza. Grabazioa amaitu da eta laster kalean izango da.

● **Maixa eta Ixiar:** Mikele singlearen aurrerapenaren ondoren, urriaren argitaratuko da Maixa eta Ixiar taldearen disko berria, laugarrena jada.



ESAN OZENKI


● **Akauzazte:** Azkoitiako taldearen lehen diskoarekin agurtu du Esan Ozenkik udazkena. Euskal Herrian *underground*-a existitzen bada, hor kokatu behar dugu Akauzazte. Intentsitatea, improbisazioa, esperimentazioa... Akauzazteren musikaren zertzelada batzuk baino ez dira, hain zaila baita azkoitiar hauen estiloa sailkatzea edo definitzea. Akauzazteren diskoa argitaratuz arriskuaren aldeko apostua egin du Esan Ozenkik. Azkarateko Katarain estudioetan grabatu du Akauzaztek bere lehen diskoa, eta urriaren 15ean izango da kalean.

● **Joxe Ripiau:** Iñigo Muguruza eta lagunak ez dute atsedetik hartzen, argazkian etzanda ageri arren. Urte osoa kontzertuak ematen igaro eta gero, denbora izan dute kantu berriak egiteko eta grabatzeko. Hirukotearen hirugarren diskoa Durangoko Azokarako kaleratuko da, neguaren atarian. Taldearen musika uda sasoiarekin lotzen duen irudia ezabatu nahiko dute beharbada.

● **Lif:** Fermin Muguruzak eta Dutek aukeratu zuten *Ireki ateak* birako lehen kontzertuetan gonbidatu gisa jo zezan. Eszenatokietan trebatu ondoren, diskoa grabatzeko txanda iritsi zaie hondarribitarrei. Herri berekoak izateaz gain, musikalki puntu komun asko dituzte Dutekin: melodien iluntasuna, abestien giro dentsoa, intentsitatea...

● **Aztlan Underground:** uste baino gehiago atzeratzen ari da New Yorken finaturiko rap eta hip hop talde honen diskoaren argitalpena, baina azkenik, datozen hilabeteetan kaleratuko da. Gora Herriak azpigi luak kaleratuko du.

BIDE ERTZEAN



ANDER GILLENIA

JOXE RIPIAU



JOSEBA TAPIA

dikazioa» izan nahi du, Gaztelupeko Hotsetik azaldu dutenez. Diseinuko marrazkiak Pablo Galarraga soraluzetarrak egin ditu. Diskoa urriaren bukaeran izango da dendetan. Ondoren, zuzeneko emanaldiak emango dituzte.

● **Mikel Urdangarin:** bertsolari zornotzarra datorren astean sartuko da bigarren diskoa grabatzera. Aurrekoa, *Haitzetan*, autoekoizpen bat izan zen, eta oihartzun txikia izan zuen arren, kritikak onak izan ziren. Bigarrena grabatzeko Gaztelupeko Hotsen laguntza izan du Urdangarinek. Pello Ramirez akordeoi eta biolontxelo joleak eta Eskoziako folk biolin jole batek kolaboratuko dute diskoan. Durangoko Azokan aurkeztuko da.

● **Down Town:** Madrilgo blues bikotea dugu Down Town. Urte bukaerarako zuzeneko diskoa kaleratuko du Gaztelupeko Hotsekin. Diskoaren zati bat joan den abuztuan grabatu zen Soraluzeko Gaztelupe tabernan, eta bigarren zatia Madrilan grabatuko da aurki, zuzenean hori ere. Blues rurala egiten du Down Townek, eta Naco Goñik gomendaturiko taldea da.

ANDER GILLENIA